



ZURE ZERBITZURA

DAGOEN ERAKUNDEA



**ZURE ZERBITZURA
DAGOEN ERAKUNDEA**



ONGIETORRI ONCE ERAKUNDERA

Noizbait entzungo zenuen ONCEren inguruan hitz egiten, eta seguruenik jakingo duzu gizarte-funtzio garrantzitsua betetzen duela, haren jolas-produktuekiko leialtasuna agertzen duten herritarren elkartasunean oinarrituz. Baina orain Erakunde horren barnean zaude zu ere, eta orri hauen bitartez, hura hobeto ezagutzea, eta batez ere, Erakunde historiko horretan zure autonomia, autoestimua eta ongizatea nabarmen hobetzen lagunduko dizkizuten erremintak, baliabideak eta profesionalak aurkituko dituzula jakitea nahi dugu.

Eta garrantzitsuena: pertsonaz osatutako talde anitza eta eskuzabala gara, eta zurekin momentuak eta esperientziak partekatzeko prest gaude.

ZURE ZERBITZURA DAGOEN ERAKUNDEA

ONCE Espainiako Gerra Zibila amaitu baino hilabete batzuk lehenago sortu zen, 1938ko abenduaren 13ko –Santa Luzia eguna– Sortze Dekretuaren bitartez, beren lanean eta gaitasunetan oinarritutako bizimodua eraikitzeko borroka egin zuten pertsonaitsu batzuek egindako ahaleginaren fruitu gisa.

Gaur egun, ONCE Zuzenbide Publikoko erakunde bat da, izaera sozialekoa eta demokratikoa, irabazi-asmorik gabea, eta pertsona itsuen eta ikusmen-urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea eta autonomia hobetzea du helburu,



elkartasun-eginkizun garrantzitsu baten bitartez eta beste desgaitasun batzuk dituzten pertsonen gizarteratze-prozesuan lagunduz.

Bere eginkizuna betetzeko, Administrazio Publikoaren laguntza jasotzen du Protektoratuaren Kontseiluaren bitartez; izan ere, hainbat Ministeriok parte hartzen dute bertan.

Zuk bezala, ikusmen-hondarra duten edo ikusmen-hondarrik ez duten 72.000 bazkidek baino gehiagok osatzen dute erakundea. Horiei zerbitzu espezializatuak eskaintzen zaizkie ikusteko desgaitasuna tratatzeko orduan, horiek gainerako herritarren eskubide eta aukera berdinak izan ditzaten.





Erakunde demokratikoa

1982. urtetik, ONCEk egitura demokratikoa du. Lau urtez behin, bazkide guztiek gure ordezkariak aukeratu ditzakegu adin gehien duten bazkideen artean.

Hautestontzietan aukeratutako bazkideek 17 Lurralde Kontseiluak eta Kontseilu Nagusia osatzen dituzte, Erakundearen Gobernu Organo gorena.

Gizarte-erakundea

Duela ia 80 urtetik, Espainiako gizarteak ONCErekiko laguntza, elkartasuna eta leialtasuna erakutsi du gure jolas-produktuak erosiz, eta horri esker, Erakunde honek ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu espezializatuak eskaintzen ditu autonomia-erkidegoetako Lurralde Zentroetan. Gainera, enplegua ematen die desgaitasuna duten 37.000 pertsonari baino gehiagori.

Erakunde solidarioa

Bere Fundazioaren bitartez, ONCEk bere jolas-produktuak salduta lortzen dituen diru-sarrera gordinen % 3 ematen die ikusteko desgaitasuna ez den beste desgaitasun batzuk (fisikoa, intelektuala, entzumenezkoa, organikoa eta abar) dituzten pertsonentzako proiektuak garatzen dituzten erakundeei.

Diru-sarrera horiekin, ONCE Fundazioak desgaitasuna duten pertsonen lan-txertaketaren eta prestakuntzaren alde lan egiten du, baita gure ingurunearen irisgarritasun globala lortzeko ere, produktuei, ondasunei eta zerbitzuei dagokienez.

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu ONCEren ILUNION izeneko Fundazioaren eta Gizarte Enpresa Taldearen inguruan hitz egitea. Izan ere, hura osatzen duten enpresak errentagarriak dira ekonomikoki eta sozialki, eta






erreferenteak dira zenbait jardueri dagokienez, hala nola, garbitegi industrialei, hotelei, aseguruei, garbitasunari, segurtasunari, adineko pertsonen egoitzei, ortopediari, irtenbide teknologikoei eta irisgarritasun unibertsalari dagokionez.

Zukosatzen duzun Erakundea

Bazkidea zaren heinean, gure Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuak eskatzeko eta ONCEren Lurralde Kontseiluko zure ordezkariengana jotzeko eskubidea duzu, horiek zure eskubideak bermatuko baitituzte.

Horrez gain, Erakundearekiko zure partaidetza, gertutasuna, konpromisoa, errespetua eta leialtasuna izan nahi ditugu. Pertsona itsuek edo ikusteko desgaitasun larria duten pertsonen bideratutako erakunde hori munduan bakarra den eredu batean oinarritzen da, eta bazkide guztien laguntza behar du hobetzen eta hazten jarraitzeko.



ONCE ERAKUNDEAREN GIZARTE-ZERBITZUAK ZUREKIN DAUDE

ONCEk zerbitzu jakin batzuk ditu zure ikusmen-galerak sortutako premiei erantzuten laguntzeko eta eguneroko bizitzan alderdi guztietan gizarteratzea eta partaidetza sustatzeko.

Itsutasunak edo ikusmen-urritasunak muga garrantzitsuak sor ditzakete, eta horregatik, ONCEk Gizarte Zerbitzu espezializatuak jartzen ditu zure eskura. Izan ere, honako hauek dira bere helburuak:

- Emozionalki zure egoera berrira egokitzeko laguntza, aholkularitza eta gomendioak eskaintzea.
- Zure ikusmenaren gainerako guztiari ahalik eta etekin gehien ateratzen laguntzea, entrenamendu zehatzen eta egoera bakoitzera egokitutako laguntzen bitartez. Dena

den, ez ahaztu zure ohiko oftalmologoarekin azterketak egiten jarraitu behar duzula.

- Zure ohiko ingurunean (lanean, ikastetxean...) modu autonomoan eta segurtasunez ibiltzen erakustea, eta erosketak, kudeaketak, garraio publikoaren erabilera... lehen bezala erabiltzen jarraitzea.
- Eguneroko jarduerak modu independentean garatzen jarraitzea, beharrezko trebezia guztietan trebatzeko: telefonoa erabili, dirua erabili, norbere burua prestatu, janariak egin...
- Lan-txertaketarako aholkularitza eta laguntza ematea, hori oso garrantzitsua baita zure garapen pertsonalerako eta sozialerako.
- Mugikortasunerako, irakurketarako, aisialdirako, kirola egiteko eta abarretarako material zehatzak eskuratzen laguntzea.





- Ordenagailua, Internet, gailu mugikorrak... erabiltzeko behar ditzakezun egokitzapenei buruzko informazioa ematea, horiek erabili ahal izateko prestatuz.
- Braille hizkuntzan irakurri eta idazten ikastea, eta beste komunikazio-sistema batzuk erakustea, entzumen-galera garrantzitsua baduzu, horiek zure premietara egokiak izan baitaitezke.
- Gurasoei bazkideak diren beren seme-alaben hezkuntzan eta estimulazioan laguntzea, ikusteko desgaitasuna horien bizitzako lehen urteetan hasten denean; hala, horien heldze-garapena erraztu ahal izango da alderdi guztietan.
- Mailegu gisa, informazioa errazago lortzeko erreminta tekniko eta material egokituak eskaintzea, baita prestazio ekonomikoak ere, hezkuntza eta lan arloan txertatzeko neurri gisa; horiek prestakuntza akademikoa eta kalitateko enplegua lortzen lagunduko dizute.

- Zure prestakuntza osatzeko behar dituzun materialak braille, erliebe edo audio digitalera egokitzea, zure lana errazteko eta aisialdiaz gozatzeko.
- Zure ekimen artistikoak eta kulturalak babestea, liburuak, musika edo argazkiak argitaratu ditzazun lagunduz, eta zure musika-taldea edo ekoizpen plastikoak sustatuz.
- Zure ahalbideei egokitzen den kirol jarduna erraztea
- ONCEk nahiz zure ohiko ingurunean antolatutako gizarte-, kultura- edo jolas-jardueretan parte hartu eta gozatzeko aukera eskaintzea.





GAINERA, ONCE ERAKUNDEAN:

- Nolabaiteko hobekuntza eskaintzen dugu baliabide gutxiago dituzten bazkideen egoera ekonomikoari eta sozialari dagokionez. Horretarako, zenbait prestazio eskaintzen ditugu laguntza publikorik jasotzen ez duten kasuetan.
- Boluntario-sare bat dugu eta sare horretara edozein unetan jo ahal izango duzu zure bizitzako eremuetan duzun partaidetza errazteko. Gainera, boluntario gisa lan egin ahal izango duzu, beste bazkide batzuei laguntzeko.
- Beste erakunde batzuekin lan egiten dugu itsutasunari aurrea hartzeko, horretarako aholkularitza genetikoan oinarrituz.
- Gure bazkideek dituzten premiei estaldura ematen saiatzen gara Erakundearen beraren bitartekoak erabiliz. Kanpoko beste baliabide batzuetara ere bideratzen ditugu

bazkideak, eskubide osoko herritarrak baikara, eta horien eskaerak kudeatzen laguntzen diegu, zailtasun pertsonal bereziko egoeretan.

Azken finean, herritar gisa erabil ditzakezun baliabide espezializatu eta osagarri batzuk jartzen ditugu zure eskura. Horiek itsutasunak edo ikusmen-urritasunak sortutako eguneroko zailtasunei modu egokian aurre egitea ahalbidetuko dizute, hori guztia zure autonomia pertsonala erabat errespetatuz: zuk erabakitzen duzu zer egin dezakegun zuri laguntzeko, eskaintzen dizkizugun laguntza-estrategiak eta -zerbitzuak erabiliz. ONCE neurria egindako janzki bat da, zure neurria egindako janzkia.

ONCE zurekin jarriko da harremanetan bere jardueren eta albisteen berri emateko, eta beraz, zurekin harremanetan jartzeko datuak aldatuz gero, zure laguntza beharko dugu horiek eguneratzeko.





Zure partaidetza eta lankidetza
oso garrantzitsuak dira
Erakundearentzat.

Huraosatzen dugun guztion
batasunari eta ahaleginari esker,
gizarte-lorpen berriak lortu
ahal izango ditugu. Horregatik,
modu aktiboan parte hartzera
animatzen zaitugu, ONCE
bazkide guztiokosatzen baitugu.

Ongi etorri!

Informazio gehiago nahi baduzu:

Gertuen duzun **ONCE**ren zentroa

Zure inguruneko **Lurralde Kontseilua**

ClubONCE: **club.once.es**

ONCEren web-orria: **www.once.es**

ONCEren informazio-bulegoa

Telefona: 91 577 37 56

Posta elektronikoa: **soi@once.es**



